

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

sortu

ESPACIO

Galderak

FUTURE

ideas

Preguntas

URVIEHU

$E=mc^2$

DISCOVER

Ideiak

ecología

Solución

Learning

Ikasi

berrikuntza

CREATION

SOCIEDAD

Artearen Oinarriak II

USE 2018

www.ehu.eus

literature

40% 30% 60%





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2018ko UZTAILA

ARTEAREN OINARRIAK II

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2018

FUNDAMENTOS DEL ARTE II

**Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.
Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

Proba-idatzi honek 3 galdera ditu, eta 90 minutuan egin behar da, gehienez.

***Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.
No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

Esta prueba escrita se compone de 3 preguntas y debe ser realizada en 90 minutos, como máximo.




A AUKERA

1. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Egin iruzkin bat jarraian agertzen den artelanari buruz. Analisisrako proposatzen den gidoia eredu gisa erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisia: azter ezazu lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa (marratzkia, kolorea, bolumena, konposizioa, etab.).
2. Interpreta ezazu nola erabili dituen egileak baliabide plastiko horiek lanaren sorkuntza globalean.
3. Saia zaitetz artelanaren gaia identifikatzen eta haren esanahian sakontzen.
4. Erlaziona ezazu irudia historiografikoki dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, argudiatu mugimendu horretako zer ezaugarri ikusten dituzun bertan ordezkatuak, eta saia zaitetz zehazten noiz egin zen.





2. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Egin garapen teoriko bat jarraian proposatzen den gaiari buruz. Zenbait artelan proposatzen dira garapen teoriko horren oinarri gisa erabil daitezkeenak. Diskurtsoan artelan horiei erreferentzia egitea baloratuko da.

Gai-proposamena: azaldu ezazu kubismoaren garapena.



PICASSO: *Avignoneko andereñoak* (1907)



PICASSO: *Natura hila sareta-aulkiarekin* (1912)



PICASSO: *Gitarra* (1912-1913)



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2018ko UZTAILA

ARTEAREN OINARRIAK II

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2018

FUNDAMENTOS DEL ARTE II

3. GALDERA (Proba idatziaren % 20 balio du): Jarraian testu zati bat proposatzen da. Irakur ezazu, laburbildu haren ideia nagusiak, eta erlazioa ezazu arte-estilo edo arte-mugimendu batekin. Eman ezazu erlazio horren zergatia.

Nik ez dut lan egiten marrazkietatik edo kolore-zirriborroetatik abiatuta. Nire pintura zuzena da (...). Metodoa beharizan baten garapen naturala da. Nire sentimenduak adierazi nahi ditut, haien azalpena egin baino gehiago. Teknika baieztapen batera iristeko bitarteko bat besterik ez da. Margotzean, egiten ari naizenaren ideia orokor bat dut. Margotze-erritmoa kontrola dezaket: ez da ustekabe bat, hasierarik eta amaierarik ez dagoen bezala.

Jackson Pollock, 1951. Hans Namuth eta Paul Falkenberg-en *Jackson Pollock* (1951) filmerako artistak egindako kontakizunetik.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2018ko UZTAILA

ARTEAREN OINARRIAK II

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2018


FUNDAMENTOS DEL ARTE II

B AUKERA

1. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Egin iruzkin bat jarraian agertzen den irudiari buruz. Analisirako proposatzen den gidoia eredu gisa erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisia: azter ezazu lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa (marrazkia, kolorea, bolumena, konposizioa, etab.).
2. Interpreta ezazu nola erabili dituen egileak baliabide plastiko horiek lanaren sorkuntza globalean.
3. Saia zaitetz artelanaren gaia identifikatzen eta haren esanahian sakontzen.
4. Erlaziona ezazu irudia dagokion arte-estilo edo mugimendurekin, argudiatu mugimendu horretako zer ezaugarri ikusten dituzun bertan ordezkatuak eta saia zaitetz zehazten noiz egin zen.





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2018ko UZTAILA

ARTEAREN OINARRIAK II


EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2018

FUNDAMENTOS DEL ARTE II

2. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): Egin garapen teoriko bat jarraian proposatzen den gaiari buruz. Zenbait artelan aurkezten dira garapen teoriko horren oinarri gisa erabil daitezkeenak. Diskurtsoan artelan horiei erreferentzia egitea baloratuko da.

Gai-proposamena: azaldu Bigarren Mundu Gerraren aurreko espresionismoaren garapena.



KIRCHNER: *Autoerretatua modelo batekin* (1910)



MARC: *Zaldi-ukuiluak* (1913-1914)



KOKOSCHKA: *Haizearen neskalaguna* (1914)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2018ko UZTAILA

ARTEAREN OINARRIAK II

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

JULIO 2018

FUNDAMENTOS DEL ARTE II

3. GALDERA (Proba idatziaren % 20 balio du): Jarraian, testu zati bat proposatzen da. Irakur ezazu, laburbildu haren ideia nagusiak, eta erlazioa ezazu arte-estilo edo arte-mugimendu batekin. Eman ezazu erlazio horren zergatia.

Interesgarria da gaur guztientzat saiatzea ulertzen zer-nolako erlazio harrigarria dagoen euskaldunaren barne-estiloaren eta hura landu zuen artearen historiaurreko prozesuarekin eta arte garaikidearen izaerarekin eta asmoekin. Saiakera horrekin estekikoki egiaztatuko genuke (hala saiatzen gara hemen) gaurko munduko egoera sortzaileetan berriro sartzeko dugun ahalmen berezia. Ez da harritzekoa behin eta berriro salatzen badugu euskaldunok gure lurraldean kulturako bizitzara berriro sartze horretarako guztiok dugun zabarkeria ezin sinetsikoa eta erruduna.

Jorge Oteiza, *Quosque tandem...! Euskal arimaren ulerkera estetikorako saioa*, 1963.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

ARTEAREN OINARRIAK II - *FUNDAMENTOS DEL ARTE II*

Ebaluazio-irizpide orokorrak

1. Eskatzen zaionari egokitzen da, eta gaien zentratzen da.
2. Zuzen eta argi adierazten ditu ideiak, eta gai da testu koherente eta egituratu bat egiteko.
3. Bere baieztapenak argudiatu egiten ditu.
4. Gaiaren hiztegi espezifikoa erabiltzen du.

Ebaluazio-irizpide espezifikoak

Artelan baten iruzkina: 4 puntu

- Iruzkindu beharreko artelanean erabiltzen diren baliabide plastikoak identifikatu, aztertu eta koherenteki justifikatzen ditu, eta artistak nola erabiltzen dituen azaltzen du.
- Agerian jartzen ditu artelanaren baliabide plastikoen eta artelanaren esanahiaren arteko erlazioak.
- Aztertu beharreko artelanari dagokion mugimendu edo garaia identifikatzen du, eta haren estilo-ezaugarri bereizgarriak ezagutzen ditu.
- Artelanaren eta artelan hori historiografikoki kokatzen den mugimendu edo estiloaren arteko loturak azaltzen ditu: obran ikusgai dauden mugimenduaren ezaugarri nagusiak aipatzen ditu, obra bere sorkuntza-garai eta -espazioan kokatzen du...

Gai baten garapena: 4 puntu

- Proposatzen zaion gaia edo arte-mugimenduaren ezaugarri garrantzitsuenak identifikatzen ditu.
- Gaiaren inguruko beste alderdi esanguratsu edo nabarmen batzuk ezagutzen ditu: kronologia, non garatu zen, artista nabarmenak....



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

- Erlazioak ezartzen ditu azaltzen ari den mugimendu, garai edo artistaren eta beste estilo, garai edo artista batzuen artean.
- Bere diskurtsoan koherenteki aipatzen ditu erreferentziatzat eman zaizkion irudiak.

Testu-iruzkina: 2 puntu

- Testuaren gaia eta ideia nagusiak identifikatzen ditu.
- Gai da testuko informazio garrantzitsuena laburbiltzeko.
- Erlazioak ezartzen ditu testuaren ideien eta testu horri dagokion estilo edo mugimenduaren artean.
- Bere ezagutzan oinarritutako irizpide koherenteak erabiltzen ditu testuaren edukien eta testuarekin erlazioa daukan estilo edo mugimenduaren arteko loturak argudiatzeko.

2018